

## Hiru bilioi tona izotz urtu dira Antartikan, 25 urtean

Antartikako izotz-geruzak hiru bilioi tona izotz galdu ditu, hogeita bost urtean, eta horrek itsas maila ia zortzi milimetro igotzea eragin du. Zortzi milimetro horietatik hiru azken bost urteetan igo dira. Horixe dio izotz-geruzaren gorabeherak ikertzen dituen [IMBIE](#) taldeak [Nature aldizkarian argitaratu duen azterketak](#).



ARG.: Mariamichelle

Satelite bidezko behaketetan oinarrituta, 1992tik 2017ra Antartikako izotz-geruzak izan duen eboluzioa aztertu dute xehetasun handiz. Ikusi dute 2012ra arte 76 mila milioi tona izotz urtzen zirela urtean, eta horrek urteko 0,2 mm-ko igoera eragin zuela itsas mailan. Ordutik aurrera, ordea, ia hirukoiztu egin da tasa hori: 2012 eta 2017 artean, urteko 219 mila milioi tona urtu dira, eta urteko 0,6 mm igo da itsas maila.


Ikertzaileek azpimarratu dute itsas maila 58 metro igotzeko adina izotz dagoela Antartikan, eta, beraz, oso garrantzitsua dela izotz-geruza horren gorabeherak ongi neurtzea klima-aldaketak duen eta izan dezakeen inpaktua ulertzeko. Ohartarazi dute denbora agortzen ari dela Antartika salbatzeko, eta, hurrengo hamar urteetan erabaki egokiak hartu ezean, ondorioek mundu osoari eragingo diotela. ●

## Arranoak, otsoak eta katamotzak, Axlorreko neandertalen jaki

Axlor haitzuloan bizi izan ziren neandertalek hegaztiak, otsoak eta katamotzak jaten zituztela ondorioztatu dute, 1970eko hamarkadan Barandiaranek gidatutako indusketatan jasotako aztarnak aztertuta. Asier Gómez Olivencia (EHU) eta Joseba Rios Garaizar (CENIEH) ikertzaileek zuzendu dute ikerketa, eta [Scientific Reports aldizkarian argitaratu dute](#).

Neandertalak nagusiki unglatu ertain eta handiez elikatzen baziren ere, gero eta ebidentzia gehiagok erakusten dute hori baino dieta aberatsagoa zutela. Adibidez, EHUKo Domingo C. Salazar ikertzaileak eta kideek argitaratu duten beste [lan batean](#) ikusi dute landareak kontsumitzea oso ohikoa zutela. Horrez gain, untxiak, dortokak, hegaztiak eta karniboroak jaten zituztela ere ikusi izan da, baina, hegaztien eta karniboroen kasuan, orain arte ez zen arrastorik topatu eremu kantauriarrean.

Orain, Axlorreko neandertalen aztarnen artean aurkitu dituzte markatuta dauden hiru hegazti-hezur (bi arrano beltzenak eta bestea belearena), eta otsoaren eta katamotzaren hezur bana. Marken arabera, ondorioztatu dute arrano beltzak eta katamotza seguruenik haragia jateko erabili zituztela, eta otsoaren kasuan izan zitekeen haragia edo larua lortzeko. ●



ARG.: Asier Gómez Olivencia